

EXCERPTA

18. zenbakia

1987-azaroa

gaiak

orrialdeak

-----	-----
Greko-Euskarazko Gramatika konposaketa (Orixe)	389
Hesiodo-ren Teogonia.....	390-391
Homero-ren "Iliada".....	392-403
Definitiones, etymologiae, explica- tiones, e Sancti Augustini scriptis depromptae.....	404-407
De vita exemplarium presbyterorum vasconum:(V)ZAITEGI.....	408
Grezia-ko Mitologia (barne-orrietako eranskina)	

Latin-grekozko idazleen
itzulpen-ikerketa lanak

Jon Gotzon Etxebarria
Gernika

GABETASUNA: Orokorki, gabetasuna euskaraz era guzti hauetara esan liteke: -baga, bage(-gabe), -bako, -tzaga, -tzaka, -tzeke.

apátheia: griñagabe; apático=geldo, griñagábe(acento)

aEdía: atsekabe

áglOssos: minge, mintzul(Olab. a imitación de ahul, e nul)

aboúlei: baitaragabe, irreflexivamente, inconsiderate

ágrios: elga, eltzaka=inmaturus. Cfr. txertaka=no injertado.

abrektos: bustitzeke, bustitzeko(dago). Corresponde al futuro en urus.

aboskos: larresoil, larregorri.

áknE mos: zangamotz, paticorto.

agrypnía: logaldua.

ágrios: Polit-urruti(Tolosa)rústico, incivil. Apodo personal.

Formación viciosa, athálassos=que no ha estado en el mar. Valdría para decir "sin mar, que no tien mar En vasco itsasoragabea=a-eis-thálassos que no ha entrado aún al mar.

athyméO=biozgabetu. Cfr. biotzil

athymía=illeta(Uitzi)=desaliento.

(jarraitzeko)

HESIODO-ren TEOGONIA

- 75 Ταῦτ' ἄρα Μοῦσαι ἄειδον, Ὀλύμπια δώματ' ἔχουσαι,
ἐννέα θυγατέρες μεγάλου Διὸς ἐκγεγαυῖαι,
Κλειώ τ' Εὐτέρπη τε Θάλεια τε Μελπομένη τε
Τερψιχόρη τ' Ἐρατώ τε Πολύμνια τ' Οὐρανίη τε
Καλλιόπη θ'. ἧ δὲ προφερεστάτη ἐστὶν ἀπασέων.
Ἡ γὰρ καὶ βασιλεῦσιν ἅμ' αἰδοίουσιν ὀπηδεῖ.
- 81 Ὅν τινα τιμήσωσι Διὸς κοῦραι μέγαλοιο
γαινόμενόν τε ἴδωσι διοτρεφῶν βασιλῆων,
τῷ μὲν ἐπὶ γλώσση γλυκερὴν χεῖουσι ἔερσην,
τοῦ δ' ἔπε' ἐκ στόματος ῥεῖ μελιχα· οἱ δέ τε λαοὶ
πάντες ἐς αὐτὸν ὄρωσι διακρίνοντα θέμιστας
ἰθύνουσι δίκην· ὁ δ' ἀσφαλέως ἀγορεύων
αἰψά κε καὶ μέγα νείκος ἐπισταμένως κατέπαυσεν·
τοῦνεκα γὰρ βασιλῆες ἐχέφρονες, οὔνεκα λαοῖς
βλαπτομένοις ἀγορήφι μετὰ τροπα ἔργα τελεῦσι
ῥηϊδίως, μαλακοῖσι παραιφάμενοι ἐπέεσσιν.

Honetara, bada, abesten zuten Musek, Olinpo-n egoitza dutenek, Zeus handiak sortarazi bederatzi alabek: Klio, Euterpe, Talia, Melpomene, Terpsi kore, Erato, Polimnia, Urania eta Kaliope. Hauxe denetan handiena. Beronek laguntzen bait ditu errege agurgarriak. Zeus

handiaren alabek, jaiotzean begiz jotako Errege, Zeus-en ikasleen arteko norbait, ohoratzeko, haren ahoan ihintz gozoa isurtzen dute eta handik harat haren ahotik ezti antzekoa dario. Eta herritar orok hari so, auzitegian zentzunez, zuzen epaitzen duenean; edo ziurtasunez mintzatuz arazo handiak laster eta trebetasunez konpontzen dituenean. Erregeak zentzudunak bait dira, agoran hitz atseginak jaulkiz kaltetutako herritarrei berena itzultzea arin lordezaten. (vv.: 75-90)



POLIMNIA

HOMERO-ren "ILIADA"

Ziurrena dirudienez, Esmirna-n jaio zen, Jesukristo-ren aurreko hamargarren gizaldian edo. Urteetan zehar ainitzek jarri dute eztabaidan haren nortasuna. Batetik eta bestetik atera ditekeenez, gaur egunean guztiek sinesten dute.

Grezia-ko izkelgien gainetik olerki-hizkera bat sortuz ondu zituen bere poemak.

Garai hartako biziera eta bizilegea agerian ezartzen dizkigu, jazkerak, ekanduak eta ohiturak azalduz. Eguneroko gertaerak, ohizko jazoerak eta ardatz-pertsoneen galdera-erantzunak hizketa modu berean damaizkigu beti. Izadi-maitale porrokatua, hitz gitxi eta zehatzetan Ludiko edertasun eta aberastasunak oro begi-aurrean ipintzen daki.

Hamasei idaztitan osoturik, lehenengoa jakingarriena beste guztien oinarri eta azalgarria.

Troia inguruko harresietan, guduaren hamargarren urtean, izurria sortzen da gudari grekoen artean. Bere apaiza irainduagatik Apolo-k damaien zigorra. Krisis Apolo-ren apaiza, Kriseida bere alaba gaizkatzera joana zen grekoen zelaira. Kriseida hori gudu-atxiloa, Agamenon-i egokitu zitzaion gudakin-banaketan. Agamenon-ek neskatxa atzera eman gura ez eta, izurria gelditzeke, Kalkante-k baietz, emateko. Agamenon hortara makurtzen da, Briseida bere neskamea Akiles-engandik lortzeko. Buruzagi biak haserretu, Atenea bitarteko dela. Tetis, Akiles-en ama, Olinpo mendira joanen da

Zeus-i asperkundera eskatzera.

Gaurko hontan bertso edo neurtitz gitxi duzu. Nerai Orixek hontaratu ninduen, bere behinolako aholkuz, Homero ederki euskaraztu litekeela esatean (Lenengo Euskal Eguretako Itzaldiak, Bilbo, 1922).

Harrez gero "Iliasena" itzuli zuen Barandiaran-dar Salbador-ek (1954) eta "Odisea" Aita Onaindia-k oraintsuago atera du (1985)

Grezia-k eta Euskal Herriak, lurrez, badute elkarren antza, Humboldt-ek eta esan dutenez.

Haien sendotasuna hizkera gozo-egokiz ondua. Gureaz ematean badu halako gogortasun-xalotasun pizka bat Gure hizkuntza zaharra antxinakoen zahar-zuhurtasunez ezkotua.

Gure Akiles-ek ez dute izan goratu ditzakeen Homero-rik, Unamuno-ren esanaz. Ea inorenak agertuz geureari eusten diogun, beste inork gurea goretz dezan.

Urteak direla burututako bertsozko itzulpen hau gaurko batura egokitzen saiatu naiz; den-dena ezin, ordea, hizkuntza lardaskatu gabe. Horregatik, adizki bat edo beste eta berba-aldaeraren bat lehenengo moduan, bat ere aldatzeke, utzi dut. Dena dela, bihoa ahalegintxo hau euskaraz egin litekeenaren erakusgarri bezala.

ΙΛΙΑΔΟΣ Α

Μῆνιν ἄειδε, θεά, Πηληϊάδεω Ἀχιλῆος
 οὐλομένην, ἣ μυρὶ Ἀχαιοῖς ἄλγε' ἔθηκε,
 πολλὰς δ' ἰφθίμους ψυχὰς Ἄϊδι προΐαψεν
 ἡρώων, αὐτοὺς δὲ ἐλώρια τεῦχε κύνεσσιν
 οἰωνοῖσὶ τε πᾶσι, Διὸς δ' ἐτελείετο βουλή,
 ἐξ οὗ δὴ τὰ πρῶτα διαστήτην ἐρίσαντε
 Ἀτρεΐδης τε ἄναξ ἀνδρῶν καὶ δῖος Ἀχιλλεύς.

Τίς τ' ἄρ σφωε θεῶν ἔριδι ξυνέηκε μάχεσθαι;
 Λητοῦς καὶ Διὸς υἱός· ὁ γὰρ βασιλῆϊ χολωθεὶς
 νοῦσον ἀνὰ στρατὸν ὤρσε κακὴν, ὀλέκοντο δὲ λαοί,
 οὐνεκα τὸν Χρῦσῆν ἠτίμασεν ἀρητῆρα
 Ἀτρεΐδης· ὁ γὰρ ἦλθε θεὸς ἐπὶ νῆας Ἀχαιῶν
 λυσόμενός τε θύγατρα φέρων τ' ἀπερείσι' ἄποινα,
 στέμματ' ἔχων ἐν χερσὶν ἐκηβόλου Ἀπόλλωνος
 χρυσεῶ ἀνὰ σκήπτρῳ, καὶ λίσσετο πάντας Ἀχαιούς,
 Ἀτρεΐδα δὲ μάλιστα δύω, κοσμήτορε λαῶν·

Abestu, Jainko-eme, Akiles Pelear
 haren sumin gaiztoa; milaka ezbehar
 ekarri bait zizkien Akearrei ta jar
 zitun Hades-en hainbat giza-gogo azkar.

Txakurren harrapakin egin bait zizkizun
 ta hegaztien jaki, gizonen bakaldun
 Atrearra ta Akiles leinargia urrun
 zirenetik ezbaika: Zeus-en nahikun!

Zein Jainkok biztu zuen bion gudu-garra?
 Jupiter ta Leton-en semeak, barne-erra
 ziola Erregeri, izurri zantarra
 sortu, gud@roztean hedatu-beharra.

Gizonak hiltzen ziren, Atrearrak Krises
 apaiza iraindu zuen ta; alaba aska-minez
 heldu zen bera, akear-ontziz bide eginez,
 ordain-sari handia zekarrela bidez;

eta Apolo gezi-jabearen girgil,
 urrezko zaharotik eskuetan zintzil.
 Akear denei, batez be herrizain bipil
 ziren Atrear biei, hola zaie hurbil:

“ Ἀτρεΐδαι τε καὶ ἄλλοι εὐκνήμιδες Ἀχαιοί,
 ὑμῖν μὲν θεοὶ δοῖεν Ὀλύμπια δώματ' ἔχοντες
 ἐκπέρσαι Πριάμοιο πόλιν, εὐ δ' οἴκαδ' ἰκέσθαι·
 παῖδα δ' ἐμοὶ λύσασθε φίλην, τὰ δ' ἄποινα δέχεσθαι,

ἄζόμενοι Διὸς υἱὸν ἐκηβόλον Ἀπόλλωνα.”

“ Ἐνθ' ἄλλοι μὲν πάντες ἐπευφήμησαν Ἀχαιοὶ
 αἰδεῖσθαι θ' ἱερῆα καὶ ἀγλαὰ δέχθαι ἄποινα·
 ἀλλ' οὐκ Ἀτρεΐδῃ Ἀγαμέμνονι ἦνδανε θυμῶ,
 ἀλλὰ κακῶς ἀφίει, κρατερόν δ' ἐπὶ μῦθον ἔτελλε·
 “ μή σε, γέρον, κοίλῃσιν ἐγὼ παρὰ νηυσὶ κίχαιω
 ἢ νῦν δηθύνοντ' ἢ ὕστερον αὖτις ἰόντα,
 μή νύ τοι οὐ χραίσμη σκῆπτρον καὶ στέμμα θεοῖο.
 τῆν δ' ἐγὼ οὐ λύσω· πρὶν μιν καὶ γῆρας ἔπεισω
 ἡμετέρῳ ἐνὶ οἴκῳ, ἐν Ἀργεῖ, τηλόθι πάτρης,
 ἰστὸν ἐποικομένην καὶ ἐμὸν λέχος ἀντιώωσαν·
 ἀλλ' ἴθι, μή μ' ἐρέθιζε, σαώτερος ὥς κε νέηαι.”

“ Ὡς ἔφατ', ἔδδεισεν δ' ὁ γέρον καὶ ἐπέθετο μῦθῳ·

Atrear ta aztaloskol ederdun gaineko
 Akear, entzun, arren: Olinpo-mendiko
 jauregietan diren jainkoek lagungo
 al dizuete Priam-hiria hausteko;

ta aberrira itzultzeko handik zorionki!
 Indazute alaba, ta har ordain-sari.
 Jupiter seme ta azkon-iraizlari
 dugun Apolon-eri lotsa erakutsi!

Hartan, Akear denek ontzat hartu zuten
 apaizari lotsa izan eta sariaren
 hartzea. Alabaina, ez zuen ederresten
 ta, Agamenon Akear ha garratz ari zen:

Ez zaitzadala, gero, agure, idoro
 izontzi-sabeletan, lotu edo gero
 atzera etorririk; alferrik osoro
 jaungoikoen ikurrin edota zaharo.

Beste hori, ostera, askatzen ez noa.
 Baizik, nirean, Argos hartan zartzaroa
 duke, herritik urrun, ehoaz linoa
 ta ohean nirekin bat eginez loa.

Joan zaitez, bada, ta ez naizu berotu,
 bizirik eta onik zaitezten bihurtu.
 Honela hitz eginda gero, aholkatu
 araura agureak gogoa makurtu.

βῆ δ' ἀκέων παρὰ θίνα πολυφλοίσβοιο θαλάσσης·
πολλὰ δ' ἔπειτ' ἀπάνευθε κίων ἠράθ' ὁ γεραιὸς
'Απόλλωνι ἄνακτι, τὸν ἠΰκομος τέκε Λητώ·

“ κλυθί μευ, ἀργυρότοξ', ὃς Χρῦσην ἀμφιβέβηκας
Κίλλαν τε ζαθέην Τενέδοιό τε ἴφι ἀνάσσεις,
Σμινθεῦ, εἴ ποτέ τοι χαρίεντ' ἐπὶ νηὸν ἔρεψα,
ἢ εἰ δὴ ποτέ τοι κατὰ πύονα μηρί' ἔκηα
ταύρων ἠδ' αἰγῶν, τόδε μοι κρήνην ἐέλωρ·
τίσειαν Δαναοὶ ἐμὰ δάκρυα σοῖσι βέλεσσιν.”

“Ὡς ἔφατ' εὐχόμενος, τοῦ δ' ἔκλυε Φοῖβος Ἀπόλλων,

βῆ δὲ κατ' Οὐλύμποιο καρῆνων χωόμενος κῆρ,
τόξ' ὤμοισιν ἔχων ἀμφηρεφέα τε φαρέτρην.

ἔκλαγξαν δ' ἄρ' οἴστοι ἐπ' ὤμων χωομένοιο,
αὐτοῦ κινήθέντος. ὁ δ' ἦϊε νυκτὶ εἰκώς.

ἔζετ' ἔπειτ' ἀπάνευθε νεῶν, μετὰ δ' ἰὸν ἔηκε·
δεινὴ δὲ κλαγγὴ γένητ' ἀργυρέοιο βιοῖο.

οὐρῆας μὲν πρῶτον ἐπώχετο καὶ κύνας ἀργούς,
αὐτὰρ ἔπειτ' αὐτοῖσι βέλος ἔχεπευκὲς ἐφίεις
βάλλ'. αἰεὶ δὲ πυραὶ νεκύων καίοντο θαμειαί.

ANTIGONA
'Αντιγόνη

Edipo-ren alaba, Ismena, Polinizes eta Eteokles-en a-
rreba. Antxinako elezaharrek Eurigania-ren alabatzat
dute. Eurigania, berriz, flegieotarren, Beozia-ko herri-
aren, Erregearen alaba zen. Halere-tragikoez geroztik
-tradiziorik zabalduenak Yokasta-ren alabatzat jot-
zen du, eta Edipo-k bere amarekin egindako inzestoa-
ren ondorengoa. Edipo-k Tresias-ko orakuloari esker
bere gaizki eginak ezagutu eta begiak itsutu eta be-
re burua Tebas-ko basamortura erbesteratu zuenean,
ibiltzeari ekin zion, itsurik, bidez bide ogi eske. An-
tigona beraren lagun egin zen. Alderai ibili-behar
hortan Atika-ko Kolona-raino heldu ziren eta han E-
dipo hil zen. Aita hil eta Antigona Tebas-era itzuli
zen Ismena bere ahizparekin bizitzera. Han proba be-
rria zuen zain. Zazpi Buruzagien gudaketan Eteokles
eta Polinizes bere nebek alderdi banatan ziharduen
borrokan: Lehenengoak gudaroste Tebarrarekin eta bi-
garrenak beren aberria erasotzen zuenarekin. Tebasko
ate-aurrean gertatu borrokaldietan Eteokles eta Po-
linizes hil egin ziren, elkarri heriotza emanik. Ete-
okles, Polinizes eta neskaten osaba zen Kreonte Er-
egeak Eteokles-entzat hileta ospetsuak antolatu zi-
tuen; eta, aberriaren aurka atzerritarrek deitu zitue-
la eta, Polinizes hilobiratzea galerazi zuen. Antigo-
na-k agindu hau bete nahi ez, ordea. Jainkoek eta ida-
tzi gabeko legeek ezarritako betebeharrak sakratua be-
zala hartzen zuen, hildakoak eta batikbat ahaide
hurbilak hilobiratzea; beraz, Kreonte-ren agindua hau

tsi eta Polinizes-en gorpuaren gainean eskukada bat hauts bota zuen;erritu-keinu hau aski zen erlijiozko eginbeharra betetzeko.Ekintza honegatik hiltzera galdu eta asabak zituen Labdazidarren hilobian bizi rik lurperatu zuten.Bahitegian burua urkatu zuen.He mon haren senargaiak-Kreonte-ren semeak-haren gorpu gainean bere burua hil zuen.Erregearen emazteak ere Euridize-k,etsita,bere burua hil zuen.

2.-Badago elezaharretan beste Antigona bat,Priamoren arreba,harritzeko ederra.Bere adatsa zela eta,harro harro,Herarena baino ederragoa zelakoan zegoen.Jainkosak,haserreturik,Antigona-ren ileak suge bihurtu zituen.Jainkoek,ordea,hartaz errukiturik,zikoina bihurtu zuten,sugeen hegazti etsaia.

Hona P.Virgilius-en idaztunea,zikoina sugeen etsaitzat dakarrena:

OPTIMA VINETIS SATIO,CUM VERE RUBENTI
CANDIDA VENIT AVIS LONGIS INVISIBLES COLUBRIS,
(Georgicon Liber II,vv,:319-320)

ANTIGONE.—Ez al dizkin ba, Kereon orrek, gure nebak, bata illobia emanaz ospatu; bestea, berriz, obiratu gabe itsusitu?

Eteokel, alegia, zuzenbidez lurperatu omen din, an be-bean, illen artean ospatua izan dedin. Polineikel, errukigarri ildakoa-ren gorpu illotzari, ordea, lurrik ez emateko illerarik ere ez egiteko erritarrei aldarriz agindu omen zien; erostake, ostera, obiratzeke, lur gañean uzteko, ikusten duten egazti arraparentzat yaki-gai ezti. Agindu au iri ta neri (neri ere baietz zionat) eman omen din Kereon onak, ta, onera omen zetorren ez dakienei argi ta garbi yakin-erazi dezaien; gañera, nolanaiko ta zelan-alako arlotzat ez oi din esten; baña, bat edo batek eragozpen ura austen badu, erri erdi-erdian arrika ilko omen din.

Ala den: eta ik aurki adieraziko den yaiotzez aiton-alaba yatorra aizan, ala, guraso zindoengandikoa izan arren, dolo-rra ote aizen.

(ANTIGONA, lenengo atala, 161-162. orrialdeak)

ANTIGONE.—Agindu ori aldarrikatu zuna Tzeu ez baitzan. Ezta beko Yainkoen bizikide dan Aserreak ere, onelako legerik, gizonei ezarri ezpaitie; ta zerorren aginduak, ilkor batenak izaki, Yainkoen agindu uts-ezin eta idatz-gabeak ausi al zitzaizketen añakoak ziranik ez nun uste. Agindu oiek, ba, ez baitira. gaurko ta atzokoak, betikoak baño. Noiztikoak diran iñork ez daki. Beraz, gizon baten asmoen bildurrez, agindu oiek ausi ta Yainkoengandik okersaria yasotzerik ez nun nai. Il bearra nintzala, zerorrek aldarrikatu baño len, banekin, bearezkoa baita. Epea bete gabe iltzen ba naiz, ostera, irabazitzat dut. Ni, bezela, ainbeste zoritxar artean bizi dan edonork, illaz, irabazia ez ote du, ba izango? Baña, eriotza irixtea naigabetzat ez dut. Nere ama ber-berengandik yayotakoa, ilda, lurperatu gabe utzi ba-nu, oñaze bizia izangõ nuke. Orain, berriz, naigaberik, ez dut. Tenteltzat beste tentel batek neritza.

(ibidem, bigarren atala, 173-174. orrialdeak)

ANTIGONE.—Zer dala-ta, ba, luzatzen duzu? Zure itz-izpirik atsegingarri ez zaidan bezela, (ta iñoiz ere ez al zait atsegingarri izango) zuri ere nerekiko edozer iguingarri zaizu. Nondik-nora dedu aintzagarriagorik lortu al izango nun, nere neba illobiratuta baño?

Ta ori, oiek guztiok ere, zure bildurrarren mingaña giltzapean lotuko ezpa-lute, atsegingarri zaiela aitortuko luteke. Ba-

kaldunak, ordea, beste obari ainitzen artean, gura ta atsegin dutena esan eta egin dezakete.

KEREON.—Kadmeo-tarren artean ik bakarrik orrela irizten dun...

ANTIGONE.—Oiek ere, iritzi berbera dute. Baña, zure ederragatik, aoa itxi daroate.

KEREON.—Oien irizkide ez aizen ezkerer lotsak ez al aun gorritzen?

ANTIGONE.—Neba sabelkideei itzal-izatea ezpaita lotsagarri.

KEREON.—Aren aurka ari zala il zana ere, ire neba ez ote unan, ala?

ANTIGONE.—Bai. Ta aita ta ama bategandikoa izan ere.

KEREON.—Zergatik, ordea, bestearentzat iraiñ diran ospe-adi-guriak eskeintzen ditun?

ANTIGONE.—Ildakoak iraintzat ez ditu aitortuko.

KEREON.—Alare, zindoari añako ospe-adi-guriak eskeintzen dizkion saltzalleari.

ANTIGONE.—Aren yopu zala etzan il, anai zala baño.

KEREON.—Bata, bere aberria birrintzen; bestea, berriz, bere aberriaren alde yokatzen ari unan.

ANTIGONE.—Alare, Ade'k bederen, eskubide berdiñak eskatzen ditu.

KEREON.—Baña, zindoak eta dollorak sari berdiña ezin diñate yaso.

ANTIGONE.—Onelakoak, an bean gurenak ote diranetz, nork daki?

KEREON.—Etsaia egundo ez ziteken adiskide izan, ezta ildakoan ere.

ANTIGONE.—Iñoren etsai izateko ez naiz yaio, adiskide izateko baño.

KEREON.—Ara! be-aldera oa, ba; ta maite izan bear ba dun. angoak maite itzan. Bizi naizen artean, emakume baten menpean ez naun egongo. Gurean, no ez dun izango nagusi, to baño.

(ibidem, 174-175. orrialdeak)

ANTIGONE.—Iñoren negarrik gabe, adiskiderik ere lagun ez dudala, ezkondu gabe, azken-bide au barna, eramana naiz, zorigaiztoko au. Eguzkiaren begi guren ori ikustea, aurrerantzean zorigaiztodun oni ez zait zillegi izango. Nere erio negar-gabea, ordea, nere adiskideetatik iñork ere, ez du tama-lez deitoratzen.

(ibidem, 185-186. orrialdeak)

ANTIGONE.—Oi! illobi ori! oi! eztei-oe ori! oi! iñoiz utziko ez dudan larpeko baitegia! ildako nereengana noa, geienak Persepase'k illen artean abetaldur baititu; ta ni, guztion azkenen eta are negargarriago noa, benetan, nere bizitz-epea eldur baño len. Yoaterakoan ordea, nere aitari maitagarri izango natzaion itxaropenak elikatzen ditut; maitagarri zuri, ene ama ori! zuri ere maitagarri neba laztan ori! Nik, ba, zuek ilda gero, yaso ta ospatu ziñuztedan; eta illobi gañean ixuriketak, nere eskuz eskeñi nizkitzuten; orain berriz, Polineikel ori! zure illotza lurperatzearren, ara! yaso dudan saria! Alare, neronek, gizon gurbillen iritzi, ospatu egin zaitut. Semien ama izan banintz eta nere senarra ilda usteltzen ikusi-ta ere, erritarren baiduri gabe, egikizun ori egundo ez nun burutuko. Baña onelako oiek nolako legearen ederrez esaten ditut?

Senarra ilda, beste senar bat izan nezakean, eta au gal-duta ere beste gizon bategandik aurrer izan nezakean. Baña nere aita ta ama Ada'n datzatela, beste nebarik ez zait sortuko. Aburu oien arauz zu, batez ere, ospatu zaitudalako, ogen egin dudala ta egikizun galgarriak egiten azartu naizala

ANTIGONE.—So-nagizute, nere aberriko uritarrok! Bide ontan barna azkenengoz yoan bai-noa ta azkenengo eguzki-izpiak azkenengoz ikusten baititut eta berriz ezpaititut ikusiko. Dana lo erazi oi dun Aida'k, Akeron ugalde-ertzeroa, eraman narama, bizi-bizirik, ezkontza murtxatu gabe ta eztei-abestirik ere iñork iñon abestu gabe. Akeron'ekin, ordea, ezkonduko naiz.

(*ibidem*, Laugarren Atala, 184. orrialdea)

ANTIGONE.—Sipilo erpiñaren gañean zoritxarrez Niobe Tantaloren, Frigiarraren, errukigarria! il zala entzun nun: bera, arrizko aldaskak, untzorri zurrun antzo, lotu zuten, eta giza-esaerak dionez, iraungitzen dagon elurrak eta euriak, iñola ere, ez omen dute alde egiten arengandik; betazal azpietatik-bera darizkion. malkoak, bustiten ditu beraren mendi-bizkarrak. Onen antzera ni ere Yainkoak lo-erazotzera narama!

(*idem*, *ibidem*)

ANTIGONE.—Ene! guztien parregarri naiz. Zergatik, Aberri-Yainkoarren ni aurrean nagola, oraindiano il ez naizen au, iraintzen nauzu? Ene! erri ori! nere erriko andikiok! Ene! Dir-kai-iturriok! eta gurdi ederdun Tebe'ko oian guren ori! zuek, beintzat, nere aitortzale zatzazkidate.

Adiskideen negarrik gabe, onelako legien aginduz, arrillobi bakan orren zulo barnera, yoan bai-noa!

Ene zorigaitzoduna! Ludi ontan, ez bestean, neretzat te-girik ez da: bizi diranen, ez ta illen ere, bizkide ezpainaiz.

(*ibidem*, 185. orrialdea)

Kereon'ek deritza, ene neba laztan ori! (*Otseiñci begira darrai*) Ta, orain, eskuetatik onela oratuta, eztei-oea dastatu baño len, ezkon-abestirik entzuteke, senarrarekin artu-emanik izateke ta nere aurra azi gabe, eraman-naramate, bakar-bakarrik, adiskideak lagun egiten ez didatela, errugikarri au, bizirik illen illobi-zulora. (*Ortziruntz begira darrai*) Ortarako, ordea, Yainkoei zer lege ausi ote dut? Zertako, zorigaitzodun onek, Yainkoei oraindiano, nere begiok zuzentzen dizkiet? Errukiaren errukiz on egiñaz, gaiztakeriaren atarra irabazi baitut. Yainkoei, baña, nere eriotza eder bazaie, egiñaren ordañez zigorra yasatean, nere burua gaizkilletzat aitortuko dut: (*Kereon'i begira*) Ogen dagitenak, berriz, oiek ba'dira, bidegabeki irentsi eragiten dizkidaten lorrak baño are galgarriagoak, ez ditzatela arren! egari.

(*ibidem*, Laugarren Atala, 186-187. orrialdeak)

ANTIGONE.—Oi, Tebe! nere gurasoen uri ta nere aberri oril ta arbasoen Yainko oiek! Aral eraman naramate ta ezereen zal ez nago.

So-nazazute Tebe'ko andikiok! gelditzen zan bakaldun-alaba azken onek, errukia aintzat artzearren, orrelako gizonengandik nolakoak yasaten ditudan, begira itzatute. (*Badaramate*).

(*idem*, *ibidem*, 187. orrialdea)



Terrazina'n 1839 g. urtean arkitu zan
Sopokel antzerkillearen irudi dalazkoa.

(Zaitegi eta Plazaola-tar Iokin, Ph.D.; "SOPOKELEN
ANTZERKIAK"(eladeratik euskeratuak); Pizkunde Eu
skal Argitaratzallea, Mexiko-n, D.F., 1946)

Joan zen itsaso hots-dun aldera isilik;
urrutira-ahala, gelditu gaberik,
Leton ileherraren semearengandik,
Goiko Apologandik, ainitz on nahirik.

Mesedez, zidarrezko uztai-eramale,
Krisas ta agurgarri den Kila-ren babesle,
Tenedos-ko aginte-adore dun jaurle,
Esmintiar hori, izan zakizkit entzule!

Inoiz zure jauretxe ikusgarria apain
badut, zezen-auntz-iztar koipetsuak eskain
badizkizut, betetu nire eskea orain:
Eman Danaiei, geziz, nire malko-ordain!

Holakoxea izan zen haren otoitza.
Phebo Apolo-k entzun; haserrez bihotza,
Olinpo-tontorretik hasi beherantza,
bizkarrean uztaia ta azkon-ontzi gaitza.

Haserrez zihoala, geziek atera
zuten hotsa, ibiltzen hasiaz batera.
Ilunaren antzeko zizun ibilkera.
Ontziditik urruti, gezi bat aidera.

Lehen^{en} ziren haren hilgai, txakur bizkor
eta mandoak. Gero, baina, gezi hilkor
haiek gizonei berei jaurtiki, suminkor.
Hil-piloak sutan, tai gabe, hemen, han, hor.

Ἐννήμαρ μὲν ἀνὰ στρατὸν ὄχετο κῆλα θεοῖο,
 τῇ δεκάτῃ δ' ἀγορήνδε καλέσσατο λαὸν Ἀχιλλεύς·
 τῷ γὰρ ἐπὶ φρεσὶ θῆκε θεὰ λευκώλενος Ἥρη·
 κήδετο γὰρ Δαναῶν, ὅτι ῥα θνήσκοντας ὄρατο.
 οἱ δ' ἐπεὶ οὖν ἤγερθεν ὀμηγερέες τ' ἐγένοντο,
 τοῖσι δ' ἀνιστάμενος μετέφη πόδας ὠκὺς Ἀχιλλεύς·
 "Ἄτρεΐδη, νῦν ἄμμε παλιμπλαγχθέντας οἴω
 ἄψ ἀπονοστήσειν, εἴ κεν θάνατόν γε φύγοιμεν,
 εἰ δὴ ὁμοῦ πόλεμός τε δαμῆ καὶ λοιμὸς Ἀχαιοῦς.
 ἀλλ' ἄγε δὴ τινα μάντιν ἐρείοιμεν ἢ ἱερῆα,
 ἢ καὶ ὄνειροπόλον, καὶ γάρ τ' ὄναρ ἐκ Διὸς ἐστίν,
 ὅς κ' εἶποι ὅ τι τόσσον ἐχώσατο Φοῖβος Ἀπόλλων,
 εἴτ' ἄρ' ὅ γ' εὐχολῆς ἐπιμέμφεται εἴθ' ἑκατόμβης,
 αἶ κέν πως ἀρνῶν κνίσσης αἰγῶν τε τελείων
 βούλεται ἀντιάσας ἡμῖν ἀπὸ λοιγὸν ἀμῦναι."
 *Ἡ τοι ὅ γ' ὡς εἰπὼν κατ' ἄρ' ἔζετο· τοῖσι δ' ἀνέστη
 Κάλχας Θεστορίδης, οἰωνοπόλων ὄχ' ἄριστος,
 ὅς ἤδη τά τ' ἔόντα τά τ' ἐσσόμενα πρό τ' ἔόντα,
 καὶ νήεσσ' ἠγήσατ' Ἀχαιῶν Ἴλιον εἴσω
 ἦν διὰ μαντοσύνην, τήν οἱ πόρε Φοῖβος Ἀπόλλων.

Bederatzi egunez hegazka ibil ziran
 Jainkoaren geziak gudozte-gainean.
 Ta Akiles-ek herria, hamargarrenean
 bildu. Beso zuridun Juno-k hori esan.

Danaiarrak zirela ta, kezkatu zegon
 Ha, hil egiten ziren ta. Batera egon
 zirenean, Akiles oin-lasterra jason
 ta biltzarrari hola mintzatu zitzaion:


"Atrearra, atzera bihurturik berriz,
 alderrai ibiliko gara, ene gardiz,
 heriotzari ihesi ezker. Izurritz
 ta guduz Akearrak hilko dira ainitz.

Galde diezaiogun igarle, bereter,
 amets-adierazle bateri-Jupiter
 bada ametsen jabe ere-Phebo Apolo zer
 zela ta, hain haserre zen, diezaigula ager.

Ea opariren bat dela ta espatsu
 ote dagoen; edo auntz-bildots koipetsu
 ederrak berari hil ta izurri kaltetsu
 hau urrunduko ote gugandik, gogotsu."

Ondoren jesarri zen. Igarle onena,
 Kalkas Testoriarra, zutitu, lehena,
 orain ta gerokoa ezagun zuena;
 Akear ontziek jo zuten Ilion-a.

ὁ σφιν εὖ φρονέων ἀγορήσατο καὶ μετέειπεν·
 "ὦ Ἀχιλεῦ, κέλεαί με, Δίφιλε, μυθήσασθαι
 μῆνιν Ἀπόλλωνος ἑκατηβελέταο ἀνακτος·
 τοιγάρ ἐγὼν ἐρέω· σὺ δὲ σύνθεο καὶ μοι ὁμοσσον
 ἢ μὲν μοι πρόφρων ἔπεσιν καὶ χερσὶν ἀρήξειν·
 ἢ γὰρ οἶομαι ἄνδρα χολωσέμεν, ὅς μέγα πάντων
 Ἀργείων κρατέει καὶ οἱ πείθονται Ἀχαιοί.
 κρείστων γὰρ βασιλεύς, ὅτε χώσεται ἀνδρὶ χέρηϊ.
 εἶ περ γάρ τε χόλον γε καὶ αὐτῆμαρ καταπέψῃ,
 ἀλλά τε καὶ μετόπισθεν ἔχει κότον, ὄφρα τελέσῃ
 ἐν στήθεσσι ἐοῖσι. σὺ δὲ φράσαι εἴ με σαώσῃ."



1

1. Zeus de Otricoli. Museo Vaticano, Roma.

Apolon-gandik hartu zun azti-laguntzaz,
 alegia. Aholkatu zitun hitz leunakaz:
 "Akiles, Jupiter-en kutun, zatozkidaz
 gezidun Apolon-en suminaz galderaz?

Hitz egingo dut, beraz; aitu, zuk, eta zin
 egidazu, gogotsu, eskuz ta hitzekin
 lagunduko nauzula; beldur naiz ta, sumin
 jarriko ote den gizon handi bat nirekin.

Argotarren artean ahalmena dauka,
 bai, ta Akearrak ditu berari baiezkak.
 Erregea areago da, izan, muturka
 hasi ezkeroko gizon gaizto baten aurka.

Egun batean gorde arren haserrea,
 gerorako gordetzen du bihotz-errea
 bularpean, ikusi artean betea.
 Ta, zuk, esan: gaixo hau gaizkatuko dea?"

96 **IZENA+ADITZA=aditza**: "Quod autem interpretati sunt nostri, Da mihi intellectum; brevius dixit graecus, **ΣΥΝΕΤΙΣΘΩ ΜΕ** : quia uno verbo complexus est. Da mihi intellectum, quod est **ΣΥΝΕΤΙΣΘΩ**, quod latine u no verbo dici non potest: tanquam si non posset dici latine sana me, et diceretur, da mihi sanitatem, sicut hic dictum est, Da mihi intellectum; aut, sanum me fac sicut etiam hic dici potest, intelligentem me fac. Quod quidem potuit et angelus facere; nam dixit Danieli, Veni intellectum dare tibi (Dan., 10-14); et hoc verbum est in graeco, quod etiam hic est, **ΣΥΝΕΤΙΣΘΩ ΣΕ**; tanquam si diceret latinus, sanitatem dare tibi, quod graecus dixisset, sanare te. Non enim circumloqueretur latinus interpres dicendo, intellectum dare tibi: si quemadmodum dici potest a sanitate, sanare te, ita dici posset ab intellectu, intellectuare te". (Enarrationes in Psalmos, 118, XVIII, 4)

Gutarrek "eman niri ulermena" itzulitako hori grekoak laburrago esan zuen, **ΣΥΝΕΤΙΣΘΩ ΜΕ**: berba bakarraz azaldu zuen eta. Eman niri ulermena, horixe bait da **ΣΥΝΕΤΙΣΘΩ**, latinez berba batez ezin da esan: latinez senda nazazu esan ezin balitz bezala, eta ordenez, eman niri osasuna esango bagenu, hemen eman niri ulermena esan den moduan; edo, egin nazazu osasuntsu, hemen egin nazazu ulerkor esatea daitekeenez. Eta aingeruak bazuen hortarako ahalbidea; esan bait zion Daniel-i, zuri ulermena ematera etorria nauzu (Dan., 10-14); eta hemengo hitz berbera agertzen da

grekoz, **ΣΥΝΕΤΙΣΘΩ ΣΕ**; latinezkoak osasuna zuri ematera balioen bezala, grekozkoak zu osatzera zeka rrelako. Osasunetik zu osatzera atera daitekeen antzera, ulermenetik zu ulermentzera atera ahal balitz, latin-itzultzaileak ez zukeen esango itzulingeruz, zuri ulermena ematera.

Grekoz laburrago esan ahal izate hori behin baino gehiagotan aipatzen du San Agustin-ek. Eta hitz berrien asma-lanean ere sarri agertzen zaigu: gogora, adibidez, 78. an nola dioen "mallet quippe cum barbarismo dici... ossum", OS-en esangura bikoitza dela eta ez erratzeko.

97 **IZEN BELTZA**: "Qui autem interpretati sunt, Non calumniantur me, graecam locutionem secuti sunt, latinae linguae minus usitatam. An forte habet vim cum dicitur, Non calumniantur me, quam haberet si diceretur, Non me capiant calumniando?". (Enarrationes in Psalmos, 118, XXVI, 3)

Eta ez nazatela kalumnia itzuli dutenek grekozko esakerari loturik egin dute, latin hizkuntzaz hainbeste erabiltzen ezz bait da. Ala ez nazatela kalumnia esatean, ez nazatela harrapa kalumniatuz esanez gero lukeen adina indar ote du?

Klasikoen aroan CALUMNIOR aditzak badu erabileta eta zentzun jatorra. Halere "non me capiant calum-

niando" horrek esangura biziagoa eta gogorragoa ere badu, noski, hain klasikoa izan gabe.

98 **IZEN-DEKLINABIDEA ETA ADITZA (latinez)**: "Nonnulli autem codices habent, non, paucissimi et incolae, sed paucissimos et incolas. Ubi apparet eos qui ista ita interpretati sunt, graecam fuisse locutionem secutos, quae transferri non potest in latinum, nisi cum ea absurditate, quae ferri omnino non possit. Si enim totam istam locutionem transferre conemur, dicturi sumus, In eo esse illos numero brevi, paucissimos et incolas in ea. Quod autem ait graecus, In eo esse illos, hoc est latine, cum essent: quod verbum non potest casus accusativus sequi, sed nominativus" (Enarrationes in Psalmos, 104, 8)

Kodize batzuk ez dakarte oso gitxi eta biztanleak (nominativoan), oso gitxi eta biztanleak (acusativoan) baizik. Eta hor erakusten da hauek hola itzuli zituztenak grekozko esakerari loturik ibili zirela; esakera hori ezin da, bestalde, latinera itzuli jasan ezinezko absurdotasunez izan ezik. Esakera guzti hau itzultzen saiatzekotan, honela esan beharke, Hartan eurak kopuru eskasean zeudela, eta oso gitxi zirela bertako biztanleak. Eta grekozko hartan zirela eurak, latinez izanik da: eta aditz horren atzetik ezin da etorri acusativo kasua, nominativoa baizik.

99 **JAIOTZE-AZTERLE-IZARLARIAK**: "Ad hoc commendandum ait, ex uno concubitu; ut nec astrologis locum daret, vel eis potius quos genethliacos appellaverunt, qui de natalibus nascentium mores et eventa conieciunt". (De diversis quaestionibus ad Simplicianum, I, 2-3)

Eta hau azaltzeko aragi-elkartze batetik, esan zuen; astrologoei biderik ez emateko, are gitxiago genethliakoak deitutakoei, jaiotzen direnen jaioteguetik haien izaera eta gertaerak ateratzen dituzte lako.

Hiztegiak erro hortatiko hiru berba dakartza: jakintza delako horren izena, jakintzari dagokion adjetiboa eta GENETHLIACUS: Gellius: izarren bidez pertsonen etorkizuna iragartzen duena. (Diccionario Latino Español; Agustin Blaquez Fraile; Sopena, 1954)

100 **JAKIN**: "Id quod scire dicimus nihil esse aliud quam ratione habere perceptum" (De libero arbitrio, lib. I, VII, 16)

Jakitea deritzagun hori hauxe baizik ez dela: adimenaren bidez atxekia.

DE VITA EXEMPLARIUM PRESBYTERORUM VASCONUM

Cum Iokin Zaitegi presbyterum cognovi, erat in Biarritz editionem "Euzko Gogoa" nuncupatam parans. Sed prius, per litteras ad invicem missas, ille de suis laboribus atque consiliis me perconctatus erat. Interea quaesivit a me ut inter magistros seminarii victoriensis novos scriptores invenirem. Ego adii Angel Sukia rectorem et olim lingua vasconum poetam laureatum; sed inter libros et documenta bibliothecae omnia carmina eius perdita esse confessus est...

Erant interea nonnulli magistri publice obtrectantes tum sacerdotibus condiscipulis tum patriae vasconum; ex quibus duos tantum proferam: Fernando Bi- et Urbano G. O., aeternum servantes sub pectore vulnus...

Ob ea omnia moerore confectus, omnia otia mea in bibliotheca consumere decrevi. Ibi que duos libros conspexi: fabulam quamdam hispano sermone confectam, signo Hispaniae supra titulum posito, Juan Jose Perez de Ormazabal auctore, in loco principali expositam. Atque in capsula occulta, inter libros congestos ac pulvere coopertos, Zaitegi presbyteri editionem "Euzko Gogoa". Auctor in exilio, opus in excidio.

EUZKO-GOGOA

Revue Bi-Mestrielle Culturelle

1958

Janvier--Février

ILBELTZA-OTSAILA

(Imprimé en avril 1958)

Hymnus

Sancta Mater, istud
agas,
Crucifixi fige plagas
Cordi meo válide.
Tui Nati vulneráti,
Tam dignáti pro me pati,
Pœnas mecum dívide.
Fac me tecum pic
flere,
Crucifixo condolére,
Donec ego víxero.
Juxta Crucem tecum
stare,
Et me tibi sociáre
In planctu desídero.
Amen.



Begoña-ko Andre Maria
Euskal Herriko bigarren
koroatua, 1900. urtean.

1

Ama maite, ezar niri
bihotzean gurutzeko
Jesus-en zauriak, bizi.

2

Nigatik neketan izan
zen zure Semean mina
nirekin batera jasan.

3

Negar dagidan bihotzez
zurekin; bizi naizeno
Jesus-ekin bat saminez.

4

Gurutz-ondoan zurekin
geratu nahi dut eta
zurekin, bai, negar egin.